

Eidabe, kultur ekimenak aurrera eramaten dituen taldea

“Gure obra guztiek helburu hezitzailea dute, ez ditugu ikuskizun soilak sortzen”



Birjinia eta Imanol Lara Zabaleta, Eidabe talde bilbotarraren kideak



“Gu kezkatzen gaituzten gaiak lantzen ditugu, hori da ezberdintzen gaituena”

aniztasuna... edota heriotza. Azken honen kasuan, penaz gogoratzen dute orain dela zazpi urte inguru sortutako ikuskizunaren helburua txikienei heriotza zer zen azaltzea zela, izan ere, arduradunen arabera: “Gai tabua da gizartean, eta memento horretan gizartea gai hau jorratzeko prest ez zegoela egiaztatu genuen, obrak ez baitzuen arrakasta handiegirik izan”. Gaur berriro oholtzara ateratzekoan zer gertatuko zen galdetean, zalantzasu azaltzen dira, berriro oholtzara igotzeko aukera airean uzten dutelarik...

Zutuberrak ikuskizuna bere aldetik, euskararen erabilera gazteen artean sustatzeko sortu zen, izan ere Imanolek eta Birjiniak azaltzen dutenaren arabera: “Gu kezkatzen gaituzten gaiak lantzen ditugu, eta hori da ezberdintzen gaituena. Esaterako, umeak euskaldunak dira baina erdaraz egiten dute. Zergatik? Zer egin haiek konturatzeko? Horretan datza obra, eta gainera arrakasta handia izan du”. Horrenbestez, Lara Zabaleta anai-arrebek azaltzen dutenez: “Familian ikustea da egokiena. Modu horretan, etxera heldu eta horri buruz hitz egitea ahalbidetzen baitute obra hauek, horregatik familia guztiak ikusteko sortzen dira”.

Bestelako proiektuak “arte eszenikoetara hurbiltzeko udalekuak” dira Eidaberen egitekoetako bat. Hondarribian antolatzen dituzte urtero eta bertan, antzerkiarekin harremana sustatzen da, gazteek lehenengo pertsonan modu profesionalen bizi dezaten. Han hitzaldiak ere eskaintzen zaizkie. Modu horretan, udalekuak eta aisialdia partekatze obrak sortzen dituzten arren, Eidabeko kideek ez dute solidaritatea alde batera uzten, izan ere, Sahararekin kolaboratu izan dute, bertan tailerrak direla medio, emakumeak ahalduzko guneak sortu dituztelarik. “Sahararako kanpamentuetan emakumeekin egin izan dugun lan, haiek ahalduzko”, Birjiniaren hitzetan. Zer helbururekin? Koordinatzaileek azaltzen dutenez, “proiektu honenkin, ateratzen zuten dirua emakumeen eskolan inbertitzen zen, gero haiek kudeatzeko”, Eidaberen baloreek, Euskal Herriko mugak ere gainditzen dituztela islatuz.

Ane López

ARTE eszenikoen bidez, txikiengan baloreetan hezi eta aisialdia familiarekin partekatu. Hori da Eidabek hamalau urteetan zehar egiten jardun duena. Izan ere aktibista bezala definitzen dute euren burua, Birjinia eta Imanol Lara Zabaleta, egun, Eider Olaziregiren batera Eidaberen arduradunak direnak. Hala, gizarteak eskatzen duena, antzezlari edo ikuskizunen bidez islatzen dutelarik. Eta helburu hezitzaile obrak sortzen dituen taldeak, ibilbide oparoa izan du urte hauetan zehar. Koordinatzaileen arabera: “Eidabe sortu zenetik mila eta ehun emanaldi eskaini ditugu Euskal Herri osoan zehar”.

Gogoratzen dutenez, orain dela hamalau urte sortu zuten Eidabe taldea, 2006an, “umeen ikuskizunei buelta bat emateko”. Izan ere, anai-arrebek azaltzen dutenez, mementora arteko ikuskizunak berdinak ziren beti. “Edo umeak eserita egoteko, besterik gabe, edota antzezlari normalak eskaintzen ziren”. Ondorioz, arduradunen aburuz, zeezer falta zen. Eta zer zen? Kalean guraso eta umeak batera inplikatzeko lanak eskaintzea, hau da; familia osoa biltzen zuten ikuskizunen bat. Horrenbestez, “kalean eta parte hartzailea izatea zen helburua”. Gainera, euskarazko obrak izan behar ziren halaberharrez.

Kanpamoluz izeneko kale ikuskizuna izan zen sortu zuten lehen-

goa, eta dudarik gabe, arrakastatsuen izan da mementora arte. Hain harrera ona eduki zuten, 200 emanaldi eskaini zituztela Euskal Herri osoan zehar. Hala ere, kale ikuskizunekin bizirik iraiteko nahikoa ez zela ikustean, aretoetarako antzezlariak sortzen hasi ziren. Hala, aretoetarako antzezlariak, kale ikuskizunak, udalekuak... denetarik sortu dute, eta horretan dabilza gaur egun oraindik.

Jaio zenetik Eidaberen kideek hamarnaka ikuskizun sortu dituzten arren, *Mari eta gailera fabrika* antzezlana edota *Gora Kasete!* kale ikuskizuna bizirik dihardute gaur egun oraindik. Hilabete honetan esaterako, Azkuna Zentroan *Meri, Mari eta Lari* aurkeztuko dute, 4an. Kasu honetan, Yogurinha Borobak eta Maria Urcelay protagonista dituen antzezlana da, eta Eidaberen obra guztiek duten ziguiluari jarraiki, helburu hezitzailea du honek ere. Galder Pérez-ek egin du gidaria, Eidaberen antzezlari gehienak bezalaxe. Sexu aniztasuna da gai nagusia, eta hala islatzen dute sinopsian bertan: “Meri haurdun dago eta aspaldi ikusi gabeko Mari lagunarekin topo egingo du. Iri-



tsi da betiko galdera: umea zer izango den galdetu dio Mari Meriri. Zergatik galdetu behar dugu neska ala mutila izango den? Hori ez al du umeak berak aukeratzeko etorkizunean? Zergatik mugatu bi aukera horietara? Izan nahi duen guztia izango du aukeran umeak: ameslaria, dantzaria, pilotaria, borrokalaria, jostalaria... Horregatik jarriko diote Lari izena”.

Kasu honetan gainera, musikaz

laguntzen dute ikuskizuna, hori baita Eidaberen ezaugarrietako bat. Zergatik? Ume txikiengatik egindako antzezlariak sortu ohi dituztenez, Birjiniak azaltzen duen bezala, “arreta mantentzen laguntzen dielako”. Horrenbestez, Yogurinha Borobaren lauzpabost kanta izango dira obran.

“Hau txikienei zuzendutako obra da, 3 urtetik aurrera, formatu txikia da eta ipuinak eta kantak ageri dira bertan. Baina beti bezala, familiarra da. Ia beti abestiak sartzen saiatzen gara dinamikoak izateko, kanta bat agertzen denean adi geratzen direlako. Sexu eta genero aniztasuna tratatzen da, umei modu naturalean azaltzeko”. Izan ere, arduradunak azaltzen duen bezala: “Txikitatik ikusten badute, normaltasun osoz hartuko dute. Guk ditugu tabuak, eta guk sartzen dizkiegu tabuak umei”. Eta horretan dabil Eidabek, hamalau urteren ostean, hurrengo belaunaldiak baloreetan hezi.

Mezudun ikuskizunak hamalau urte hauetan, denetarik obrak sortzeko denbora izan du Eidabek, baina ibilbide oparoan zehar oholtzara edota kalera aterako obrak amankomunean dutena hau da: “Denek dute mezuren bat, ez dira ikuskizun soilak, helburu batekin sortzen ditugu; didaktikoak edota hezitzaileak dira guztiak”, Birjiniak azpimarratzen duenez. Horren adibide dira orain arte sortutako obrak. Parekidetasuna, emakumeen borroka, sexu



“Umeen ikuskizunei buelta bat emateko sortu genuen Eidabe, espektakuluak beti berdinak zirelako”